

danbolin

2024 azaroa

265 zk.



Farah Salem,
Saharako Martxa Berdean
bere amak bizitakoak
ari da jasotzen
liburu batean



675 965 116 iraopottoka@gmail.com



Gesalaga kalea 8, Zestoa tel./fax 943 147 006
WhatsApp: 661590009 farmazu@farmanorte.org



Tel. 943 851 868
e-posta: lintsantaclara@hotmail.com



erdikalea 3
tel. 943 147 196



tel. 943 536 314

Ordutegia:
Astelehenetik ostiralera
07:30-13:30, 16:30-21:00
Larunbat eta igandetan
07:30-14:30, 17:00-21:00



943 147 657



Gestoria Zubia

M^a Jesus Zubia Olaizola
Portale kalea 7, behea - 20740 ZESTOA
Tel./FAX: 943 897 070



Zestoa
AUTOESKOLA

Gesalaga 1 Tel. 943 148 524
20740 Zestoa Gipuzkoa zestoa_autoeskola@hotmail.com

Tel.: 943 14 73 44



merendero
Iraeta-Zestoa (Gipuzkoa)
merenderobelketro@gmail.com


URRIA					
1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30
31					

AZAROA					
1	2	3			
4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27
28	29	30	31		

ABENDUA					
1					
2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30	31



Erdikalea 5
Telf: 943 14 73 22
20740 Zestoa (Gipuzkoa)



ABOKATUA GESTORIA
KONTABILITATEAK ZERGAK
INMOBILIARIA GESTIOA LABORALA
KOMUNITATE ADMINISTRAZIOA ASEGUURUAK

Gesalaga kalea, 22 behea 20740 ZESTOA
Tel./Fax.: 943 897 099 asesoriarin@asesoriarin.com



Olaizola eta Uria kalea - Iraeta
943 147 067



GARRAIO SISTEMAK
ERREMOLKEEN SALMENTA
ERREMOLKEETARAKO OSAGARRIAK
KARABANA, AUTOKARABANA eta
FURGONETETARAKO OSAGARRIAK
KONPONKETA eta
MANTENTZE LANAK
telf. 943 147 679
www.caravan-park.net
info@caravan-park.net



Gestoria Zubia

M^a Jesus Zubia Olaizola
Portale kalea 7, behea - 20740 ZESTOA
Tel./FAX: 943 897 070

Portale Kalea 7,
20740 Zestoa
tel. 943 147 088



kutxabank



TXOKO TXIKI
Okindegia eta taberna
943 052 761



kutxi eta
pentsuak
www.laiakdenda.com
tfnor: 943148134
Lurraren onena
Zestoaren bihotzean.



Mutua General de Seguros

JAVIER ALBERDI
Aseguru agente eksklusiboa

Gesalaga, 18 behea · 20740 Zestoa
T/ 943 89 71 01 · jalberdi@mgs.es

Itzulpen eta
argitalpen zerbitzuak, s.l

Itzulpenak baino
askoz gehiago!



Narkis Balentziaga, 2 T+34 943 148 306 bakun@bakun.eus
20749 Arroa (Gipuzkoa) F+34 943 897 380 www.bakun.eus



UROLA
ITURGINTZA
665 49 07 73



foru plaza, 4
tel. 943 147 095



Aranburu
Landetxea
eta
jaketxea
943 148 005

zauriak

Ez naiz oso azarozalea, hilabete iluna da, lanetik berandu ateratzen garenok gauak egunari irabazi dionean etxeratzen gara; hala esan zidan duela urte batzuk lagun batek, "noviembria tristia da". Danbolin aldizkariari sarrera ematea ere ez dut oso gogoko, buruari buelta asko eman behar izaten dizkiot zertaz idatzi erabakitzeke. Oraingo honetan bi gai oso interesgarri dakartzagu: Farah Salem eta GI-631 errepidearen bulebarizazioa.

Farah Salem Zestoako sahararra da, emakume borrokalaria. Liburu bat idazten ari da 1975eko Martxa Berdearen inguruan; bere amaren kontakizunak ditu ardatz, 13 urte baitzuten hark gertaerak bere bizitza hankaz gora jarri zuenean. Jone Bergarak egin dion elkarrizketa interesgarria da Mendebaldeko Saharak bizi duen egoeraz jabetzeko eta baita munduan zehar dabilzan saharar errefuxiatuen errealitateari erreparatzeko ere. Jarriko ahal dira hango zauriak inoiz ixtera bidean! Lerro hauek idazten hasi aurretik, Jone Bergarak, gure jefak, hala esan dit: "errepidearen bulebarizazioaz idatzi behar baduzu, ez egin modu oso pertsonalean". Ezin dut nik, ordea, errepideaz modu inpersonalean idatzi, GI-631 errepideak hankaz gora jarri baitzuen nire bizitza. 1996ko urtarrilaren 15ean izan zen, eguerdiko 12:30 bueltan, eskolatik bueltan nentorrela. Sei urte nituen, zazpi egiteko hilabeteren faltan. Istripuaren inguruko nondik norakoez ezin dut askorik esan, ez baitut ezer gogoratzen ez egun horretaz, ez aurreko hilabetez. Eskolatik bueltan nire atzetik zetozen bi anaiek esandakoa dakit: leotardo arrosak neramatzala soinean eta handia izan zela kolpea. Errepidetik jaso eta anbulatoriora eskolako bi irakaslek eraman nindutela ere badakit.

Bizpahiru egun pasa nituen koman eta ia urtebete errehabilitazioan. "Picapiedras jarriko zionagu, gustatzen zaion eta", hori da istripu ondoren daukadan lehen oroitzapena, gure izeba Amaia gure amari hitz horiek esaten; Pedro Harriketarra ospitaleko gelako telebistan zela esnatu nintzen. Ondorengo hilabeteetan berriro ikasi behar izan nuen oinez, eskailerak igotzen eta jaisten, bizikleta gainetik ez erortzen... Zortea izan nuen, nire zauriak sendatu ziren; orbainen bat eta ondorioren bat gorabehera, oroitzapenean geratu da.

GI-631 errepidea herria erdibitzen duen zauria dela entzun nuen behin, eta proiektu honekin herriak bere egingo duela. Aldaketetara ohitu egin beharko dugu; herri sarrerak direla, herri barruko kaleen norabidea dela...

Atzera bueltarik gabeko gertaerak ere izan dira errepidean, zauri sendaezinak. Zauri zaharrak sendatzeko ez bada ere, balio dezala proiektuak berrikerik ez egiteko!

nerrea odriziozola



DANBOLINEK EZ DU BERE GAIN HARTZEN ALDIZKARIAN ADIERAZITAKO ESANEN ETA IRITZIEN ERANTZUKIZUNA

Argitarabaitlea: DANBOLIN ZULO ELKARTEA. KULTUR EGXEA. AXUN ARRAZOLA PLAZA 1, 20740 ZESTOEA (GIPUZKOA)

722 609 265 INFO@DANBOLIN.EUS

Danbolin: NAIARA EXPOSITO, AMAIUR ARISTI, URKO CANSECO, SARA MASCUCANI, PERU GARCIA, JONE BERGARA, ITSASO WALIÑO ETA OHIANA CALPARSORO

Kolaborabaitle/argitarabaitle taldea:

NAGORE TELLERIA, JON ARGANO, FERNANDO ARZALLUS, ONINTZA IRURETA, MIREIA ORBEGOZO, EIDER ARRIZABALAGA, MAIDER ARREGI, NEREA ODRIOZOLA, ITSASO ZUBIRIA ETA MIKEL IRURE

Disainua eta maketazioa:

ENEKO ARISTI

Inprimabegia: GERTU (OÑATI).

Lege gordailua: SS-1108/2000

ISSN: 1576-9429



Anaikidezza

Emozio eta sentimendu asko mugitzen dituen hitza. Urepele izan da Zestoarekin senidetzen azken herria, aurrez Palestinako Birzit eta Saharako Tishla herriak izan ziren. Urepelen ez, baina beste bi herrietan borroka eta sufrimendua dute egunerokoa. Hala ere, Saharako errefuxiatu kanpamentuetara egin ditudan bidaietan esperantza sumatu dut. Desertuko zeru izarratuari begira, inoiz ez nuen ikusi nire burua orain bizitzen ari naizen egoeran. Betidanik izan dut gustuko interpretazioa eta gaztetan antzerkian ibili banintzen ere, hantxe gelditu zen. Urte asko pasa ondoren, berriro sartu nintzen buru belarri antzerki munduan. Hamar urte Zestoako Antzerki Taldean egin ondoren, Donostiako TAEn, Arte Eszenikoen Eskolan, igaro ditut bi urte eta maiatzean graduatu berri naiz. Sei urte ere badira Lili jauregian Andremadalenen azalean jartzen naizela.



Oso gustuko dut herrian bizi izan zen emakume ahaldundu haren lekuan jartzea. Pasa den urriaren 2an, Andremadalenen soinekoa zintzilikatu eta, ekitaldiak eskatzen zuen moduan, galaz jantzi nintzen Bilboko Campos Eliseosen banatu ziren Besarkada Sarietako ekitaldia aurkezteko. EABk, Euskal Aktoreen Batasunak, bi urtetik behin banatzen ditu sari hauek Euskal Herriko aktoreen artean. Esperientzia ederra bizi izan nuen! Erakusleihu polita niretzat, han baitzeuden gaur egun punta-puntan dabiltzan aktore eta zuzendari onenak. Horietako batzuekin grabatu dut pasa den asteburuan film labur bat, lehen ere beste bat grabatu nuen, publizitate bideoklip bat ere bai... dagoena hartu behar eta lan txikietatik hasi, zerbait handiagoa egiteko. Horrelaxe nabil orain, egunen batean Zinemaldiko alfronbra gorria zapaltzeko ilusioarekin! Horretarako bai behar harko dudala benetako gala-jantzia! Agian, Markel Etxeberriak Balenciagako soineko eder bat utziko lidake. Zer diozu Markel? Edo zuk diseinatutako soineko bat jantzi nezake... Zer berri Paris aldeko glamourrez betetako kale, estudio eta pasareletan?

entzidoa

ima izeta "Koiate"

pintada. Arroa BEHEKO artisau eta baserritarren azoka laugarren aldiz antolatu dugu aurten, eta antolatzaileak barrua beteta goaz etxera. Goiz osoan euria egin duen arren, ez da bisitaririk falta izan. Are gehiago, azoka jendetsua izan da, eta ekoizleak ere oso gustura gelditu dira egunarekin. Askok ekarritako dena saldu dute, eta talogileak beste behin ere jenero gabe gelditu dira, nahiz eta iazkoaren bikoitza zeukaten. Hurrengorako apuntea, bi talogile postu ekarri! Urtetik urtera ikasten goaz; hala, gero eta errazagoa da azokaren antolakuntza. Duela hiru urte, hogeita hamar posturekin egin genuen lehena, eta urtero handitzen joan gara, azpiegitura lanak finitzen, akatsetatik ikasten... Jendea ere urtez urte hurbiltzen dela ikusteak poza ematen du, gure lanak zentzua duela erakusten baitu: inguruko ekoizle eta artisauei ikusgarritasuna ematea da azoka honen helburuetako bat, eta harro esan dezakegu xumetasunetik eta bolondres lanarekin aurrera ateratzen dela. Antolaketa lagundu nahi duenarentzat atea irekita egongo dira datorren urtean ere. Bitartean, gure aldetik esker beroenak hau posible egiten lagundu duten bolondresei, postuetan egon diren ekoizle eta artisauei, giroa alaitzen kantuan ibili direnei, azpiegiturarekin laguntzeagatik Udalari, eta, bereziki, euritan ere azokara etorri zareten guztioi, eskuz eta mimoz egindako lanari balioa emateagatik.

azokako antolakuntza taldea

BURUKO errota martxan

Gaza, Ukraina, Israel, Errusia, Libano, Estatu Batuak, heriotza, gosea, desplazatuak, haurrak, emakumeak, 42.000, 100.000, zenbat? Genozidioa, negozioa, armak, interesak, dirua, migrazioa, arrazakeria, gorrotoa, geopolitika, Trump, Harris, Mi-ley, Maduro, Putin, Netanyahu, Kim Jong-un, klima aldaketa, berotegi-efektua, negazioa, dana, uholdeak, lehortekak, tenperatura maximoaren errekorra, minimoaren errekorra, gerrak, gosetea, pobrezia, hiesi, mafiak, basamortua, itsasoa, patera, kaiuko, txalupa, gorpukak, txikiak, handiak, Meloni, Abascal, ultraeskuina, neonaziak, hooliganak, homofobia, txuria ala beltza, langabezia, behartsuak pobregoa, ahaldunak aberatsago, Elon Musk, Zuckerberg, adimen artifiziala, sare sozialak, matxismoa, bortxaketak, etxeokak edo kanpokoak, zaintza, eliza, pederastia, zezenketak dira tortura...

Jarrai nezakeen, Danbolin osoa bete arte. Baina dena ez da txarra mundu honetan:

Maitasuna, familia, kuadrilla, laguna, besarkada, muxua, laztanak, konfiantza, hizketaldiak, paxiua, Sastarrain, eguzkia, euria, urtaroak, natura, mendia, hondartza, itsasoa, kafea, trago bat, parranda, bikotea, ferekak, sexua, masturbazioa, plazera, musika, zinea, euskara, liburuak, gurea kultura, jatekoa, siesa, haurrak, barreak, negarra, konplizitatea, kooperazioa, laguntza, esperantza, boluntarioak, auzolana, hamaiketakoa, argazki zaharrak, bidaiak, oporrak, deskonexioa, lasaitasuna, meditazioa, masajea, ZU... ZU bai, edo HI irakurle, zeren mundu honetan gauza txar asko dagoen arren gauza politen pisua handiagoa da eta ZU ere polita zara, politikak gaittunk! Heriotza zor dugu jaiotzen garen unetik. Momentuak bizi, aske izan, bihotzari jarraitu besteek diotenari jaramonik egin gabe. Zure buruari onena opa.

ZESTOA arnasmunea da. NOIZ arte?

Azken hilabeteetan Eusko Jaurlaritzak, UEMAk eta Nafarroako Euskarabideak antolatutako ARNASETIK egitasmoan lan egiteko aukera izan dut. Egitasmo hau LH5etik DBH4ra arteko haur eta nerabeei zuzendutako bideo-sormen lehiaketa bat da, 'Arnasa Gara' deitzen den egitasmo zabalagoaren parte dena. Egitasmo horrek arnasmuneak balioan jartzea

eta bertako biztanleak eta zehazki belau-naldi berriak ahalduntzea du helburu.

Euskararen biziberritze eta biziraupenari begira, arnasmuneek berebiziko ga-

rrantzia dute eta zorionez, Zestoa horietako bat da, baina noiz arte?

Zer dira arnasmuneak? Txosten ofizialaren arabera,

"Eguneroko mintzajardun arruntetan bertakoen artean euskara nagusitzen den gune soziogeografikoak dira arnasmuneak, zeinetan herritarrek beren egunerokoan, gunean bertan dituzten komunikazio harremanak nagusiki euskaraz garatzen dituzten. Bertako hiztunen hizkuntza-gaitasunari erreparatuta, gehienek euskara dute errazen/ongien erabiltzen dakiten hizkuntza".

Hau irakurrita esango zenuke Zestoa arnasmune bat dela? Nik bai, baina ezaugarri zehatzei erreparatuta eta etorkizunean begirada jarrita, ezinegona sortzen zaidala ezin uka. Zenbat gaztetxo entzuten ditudan erdaraz jatorriz euskaldunak ez direnekin, nahiz eta ikasgelan eurekin euskaraz aritu!

Arnasmuneek mendez mendez eutsi diote euskararen erabilerari, eta aurrerantzean ere bertako hiztunek hartzen duten jarrera erabakigarria izango da euskararen etorkizunari eta erabilerari begira. Benetan jakitun al gara zer nolako altxorrak inguratzen gaituen? Eta gure gaztetxoek hau horrela sentitzen al dute? Gure egunerokoan naturaltasunez euskaraz bizi gaitezke, inguratzen gaituzten harremanetan hizkuntza jarrerak baldintzatzeko ahalmena daukagu; euskara ongi egin ez, baina euskaraz ulertzen duen horrekin euskaraz lehen hitzak eginez, etorkinen euskalduntzean lagunduz, azken finean euskararen etorkizuna bermatuz.

Horregatik pena handia eman zidan ikusteak Zestoako eskolako talde bakar batek ere ez zuela lanik aurkeztu bideo-sormen lehiaketan. Aukera polita zen gure haurrak gaian ahalduntzeko eta sormen lan bat aurrera eramatera animatzeko.

Aukera galduetatik ere ikas daiteke, jarraitu dezagun egunero gure hizkuntzaren aldeko jarrerak elikatzen, hori horrela izan dadin testuingurua badugu oraindik.



elizabeth pomba

manu izeta



EGURALDI TXARRAK EZ ZUEN JENDEA BELDURTU ARROAKO AZOKARA JOATEKO

Urtetik urtera indarra hartzen ari da Arroabeko Baserritar eta Artisanen Azoka. Azaroaren 17an egin zen azokan inguruko ekoizle eta artisauetz osatutako 60 postu inguru izan ziren. Eguraldiak asko lagundu ez bazuen ere jendetza gerturatu zen Arroabera.



ZESTOAKO UDALBATZAK 523.000 EUROKO KALTE-ORDAINARI AURRE EGITEKO AURREKONTU-ALDAKETA ONARTU DU

Udal batzarra egin zen pasa den urriaren 30ean. Jorratu ziren gaien inguruan pisu handiena hartu zuena, 2024 urteko aurrekontuaren 3. aldaketa izan zen.

Bilkuran alkateak adierazi zuenez, Auzitegi Gorenak berretsi egin du Zestoako Udala 523.000 euroko kalte-ordaina ematera behartzen duen epaia, 1999an hartutako lan-konpromiso bat ez betetzeagatik. Mikel Arregi alkateak, "ikaragarritzat" jo zuen Udalaren finantza-inpaktua soberakinik gabe geratuko baita eta 2025eko aurrekontua doitu beharko baitu, bere kaudimenari eraginez. Gainera, aurreko legegintzaldietan kasua gaizki kudeatu izana kritikatu zuen, Arregik. Oposizioarekin desadostasunak izan arren, udal batzarrean aho batez onartu zen aurrekontua aldatzea, zehapena betetzeko.



GAZTAÑERRE EGUNeko OLINPIADAK ZESTOAKO IKASTETXEAN

Hiru koloretan banatuta, Zestoako ikastetxeko haur, irakasle eta gurasoek elkarrekin olinpiar jolasak egin zituzten azaroaren 15ean. Amaieran, Gaztañerre kanta jo zuten txirularekin eta kiroldegi kanpoan gaztaña erreak banatu zituzten.



FRONTOIKO TEILATUAN JARRITAKO PLAKA FOTOVOLTAIKOAK MARTXAN DAUDE

Urriaren 29an jarri ziren martxan kiroldetako frontoiko teilatuan jarritako plaka fotovoltaikoak. Azpiegitura berri hori autokontsumorako diseinatu da, eta bi kilometroko erradioan dauden 24 udal eraikin eta lokalek sortutako energiak baliatzeko aukera eman du. Energia berriztagarri hori erabiliko duten espazioen artean daude, esate baterako, Zestoako Ikastetxea, Udaletxea, Kultur Etxea, eguneko zentroa eta kiroldetgia.

Instalazioak 122,04 kWp-eko potentzia ematen duten 216 modulu monokristalino ditu eta argiaren fakturan % 34,9 aurreztea espero da, hau da, 17.800 euro inguru, urtean.



SAN MARTINAK OSPATU DITUZTE LASAON

Azaroaren 11n meza eta jubilatuen hamaiketakoak izan baziren ere, ostiralean bota zuten txupinazoa, Lasaon eta pintxo-triki poteoa ere egin zuten Iratitz eta Unai trikitilariekin. Larunbatean izan zen egun handia, azaroaren 16an. Umeen txupinazoa eta bazkaria izan ziren eguerdian, eta ondoren, puzgarriak eta txokolatada, frontoian. Jaiei amaiera emateko, 60 lagunetik gora elkartu ziren Andoni Egaña eta Amets Arzallusen bertso afaritan. Hitzeder eta Txibilter trikitilariak girotu zuten afaria.



BANDAK ROCKALEAN TALDEAREKIN BATERA ESKAINI ZUEN SANTA ZEZILIA KONZERTUA

Musikariaren patrioiaren egunean, azaroaren 22an, kontzertu berezia eskaini zuen bandak, oraingoan, Errenteriako Rockalean taldearekin elkarlanean.

Errepertorioak euskal musikaren klasikoak eta nazioarteko rock arrakastak bildu zituen eta besteak beste, "Deep Purple" eta "Xalbadorren Heriotzean" bezalako pieza ezagunak jo zituzten. Beñat Etxabek zuzendu zuen kontzertua. Zestoako Udalak diruz lagundutako ekimena izan zen eta musika zaleek eta rock zaleek gozatu ederra hartu zuten.

Ertxiña musika eskolakoek Musikalean ekimenarekin musika kalera ateraz ospatu zuten Santa Zezilia. Aurrene kultur etxeko aretoan eskaini zuten entzunaldia.



ZESTOAN

uste baino gehiago

Janaridendak

ELORZA
janaridenda
943 147 660

ARRAINDEGIA
KONTXI
ZESTOA 943 148 247
AZPEITIA 943 811 946

miantxa
943 147 015



unide
egunero janariak
943 558 005

UZKUDUN
harategia
Erdikalea, 5
Tel. 943 147 023
ZESTOA

Teknologia, liburu, paper denda

943 147 110
mairl
LOTERIA
ESTANKOA

LOTXOLO
Tel. 943 147 133

Zbitt
Tif. 943 148 010

Etixerako osagarriak

ONK
943 147 081-647 683 643

UGARTE
burdindegia s.l.
943 147 154

Arropa eta oinetakoak

IRAOLA
ZAPATEGIA
617 269 408

lili 943 148 061

Edertasuna eta ongizatea

beatriz izeta
943 148 322

KERALA
ongizate txokoa
679 885 173

S
ESTILISTAK
680 802 777

ZESTOA
ZURETZAT

Euskadi, auzolana, bien común



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

TURISMO, MERKATARITZA
ETA KONSUMO SAILA
DEPARTAMENTO DE TURISMO,
COMERCIO Y CONSUMO



ZESTOAKO UDALA

Herria errepidea bereganatze bidean

Duela hiruzpalau hamarkadatik hona, Zestoako herrigunean zuen eragina zela-eta, GI 631 errepidea lur azpitik eramatea edo bestela saihesbideren bat egiteko aukerak aztertu ziren. Aukera horiek, ordea, bertan behera laga zituen Foru Aldundiko Errepide Sailak, arrazoi ezberdinak tarteko. Aurreko legegintzaldian errepidea bulebarizatu eta herriko sarrera irteerak berrantolatuko akordioa hitzartu zuten Udalak eta Foru Aldundiak. Endara Ingeniari Taldeari esleitu zitzaion Herriguneko Mugikortasun Plana eta 2021ean, herritarren ekarpenak jaso asmoz, jendaurrean aurkeztu zen.

Proiektuak hainbat helburu ditu: alde batetik, geroz eta trafiko handiagoa duen eta Arteaga auzoa herrigunetik bereizten duen errepidean, ibilgailuak mantoago joatea. Plana gauzatzen denean, autoek herri barruko abiaduran, zeharkatu beharko dute errepidea. Bestalde, irisgarritasunari begira, Arteaga auzoa eta eskola lotuko dituen espaloi berria ere egingo da. Azkenik, herriko sarrera-irteerak berrantolatuko dira, eta barne zirkulazioa hobetze aldera eta oinezkoei lehentasuna emanez, hainbat kale norabide bakarrekokoak izango dira. Bide batez, ibilgailu pribatuekiko dugun menpekotasunean ere eragin nahi du Udalak.

2024ko maiatzean Foru Aldundiak argi berdea eman eta gero, irailean hasi dira lanak eta uda hasierarako amaitzea aurreikusten da. Excavaciones y Transportes Orsa S.L. enpresari esleitu zaizkio lanak. Obra 1.373.356,75 eurotan lizitatu da eta Foru Aldundiaren laguntza izango du.





I. GASOLINDEGI INGURUA BERRANTOLATU EGINO DA
 Zumaia aldetik etorrira, Arteagan sartzeko, gasolindegi aldera sartu beharko da aurrena.

B. ERTXIÑONDO PAREKO SA
 Ertxiñondo aldetiketik Ipintza kal
 ahal izango da.



A. LIZARRAITZ AUZUNEA
 Ertxiñondo paretik sartu bakarrik egin ahal
 izango da. Atera, gasolindegi ondoan egokituko
 den irteeratik egingo da.



C
 Gurutzeaga



KO SARRERA/IRTEERA
ntza kalera bakarrik sartu

C. GURUTZEAGA KALEA
Norantza bakarrekoa izango da.



ARTEAGA ETA ESKOLA LOTZEN DITUEN ESPALDIA
Arteagako bizilagunek eskola eta Bidezarra aldera joateko ez dute errepidea gurutzatu beharrik izango. Eskola eta San Juan egoitzara irisgarritasuna hobetuko da.

2. HERRIKO SARRERA NAGUSIA
Enekosauztegitik izango da. Semaforoa eta itxaron erreia jarriko dira. Segurtasunagatik haur txikien Enekosauztegiko eskolako sarrera kenduko da. Autoak aparkatzeko norantza aldatuko da.



AUTOBUS GELTOKIA
Herrigunera gerturatuko da.

3. AKOAKO BIDEGURUTZEA
Itxaron erreia sortuko da trafikoa gutxiago eten eta Akoa sarrera hobetzeko.

D. AROZENA AUREA
Norantza bakarrekoa izango da. Herritik bi aldeetara irteteko edo Akoa aldera hartzeko aukera izango da.





SARRERA IRTEERETAKO ALDAKETA NAGUSIAK:

Herrigunera sarrera nagusia Enekosauztegi edo mediku etxe aurretik egingo da. Garai batean Ertxiñondo okindegia zegoen paretik Ipintza kalera, bakarrik sartu ahal izango da. Arorena aurretik, berriz, irten bakarrik (Azpeitia, Akoa edo Zumaia aldera). Arteagako sarrera-irteerak ere antolatuko dira: Behe aldetik (gasolindegi parean) bi aldeetara, alegia Zumaia aldera nahiz Azpeitia aldera, atera ahal izango da; Ertxiñondo parean, ordea, Zumaia aldera bakarrik (ezingo da Azpeitia aldera hartu). Auzora sartzeko, berriz, Zumaia aldetik sartzeko gasolindegi paretik bakarrik sartu ahal izango da; Azpeitia aldetik etorri gero, berriz, bietatik izango da aukera, alegia, gasolindegi aldetik nahiz Ertxiñondo aldetik. Gurutzeaga kalea, Kultur etxe aurretik Ipintza alderaino, zentzu bakarrekoa izango da. Bertatik, Azpeitia aldera nahiz Zumaia aldera atera ahal izango dute autoek. Akoa aldetik Zumaia aldera bakarrik atera ahal izango da, eta debekatuta egongo da, gaur egun dagoen bezala, Azpeitirantz ateratzea (horretarako Enekosauztegitik joan beharko da). Azpeitia aldetik datozen autoak herrigunera sartzeko, itxaron erreia izango dute Enekosauztegira sartzeko. Toribio Altzagan ez da aldaketarik.

TRAFIKOA BARETzea HELBURU:

Errepidea herrian hobeto integratzeko helburuarekin, errepide guztia argiztatu egingo da, 30 farola berriren bidez. Bestalde, autoen abiadura mantsotu asmoz, lehendik dagoen semaforoaz gain, beste bat jarriko da, mediku etxe parean, hori izango baita herrirako sarrera nagusia. Gainera, zebrabideak bi espaloiak lotuko ditu: Aristondo aldekoa eta Arteagatik ikastetxeko patiora zuzenean joango dena.

jone bergara
eneko aristi



1. GASOLINDEGI INGURUA BERRANTOLATU EGINGO DA

Lizarraitz auzuneko irteera sortuko da. Zumaia aldetik datozen autoek gasolindegi aldera sartu beharko dute Arteagan sartzeko.



2. HERRIKO SARRERA NAGUSIA

Enekosauztegi kaletik izango da



3. AKOAKO BIDE GURUTZEA

Akoa eta San Joan ingurura sartzeko itxaron erreia egingo da. Zumaia aldera bakarrik aterako ahal izango da.






 @erniosukaldeak
 Harzubia hiribidea, 51 - AZPEITIA 943 815 705 - 943 150 063

EUSKARALDIA

2025EKO MAIATZAREN 15ETIK 25ERA

Herriko hamaikakoa osatzera goaz

*Elkar mugituz egingo dugu
betiko moduan, euskaraz*



EUSKAREN ALDEKO LANAK ZESTOAN

HONDARRAREN ETA
 EGUZKIAREN ARTEAN,
 SAHARAKO
 ERREFUXIATUEN
 KANPAMENDUAN JAI
 ZEN FARAH SALEM.
 IRRATI ESATARI IZAN
 ZEN TINDUFEKO
 KANPAMENDUAN ETA
 GERRA GARAIKO
 EMAKUMEEN
 TESTIGANTZAK JASO
 ZITUEN SAHARAKO
 IRRATI NAZIONALEAN.
 GAUR EGUN, LIBURU
 BAT IDAZTEN ARI DA,
 1975EKO MARTXA
 BERDEAN 13 URTE
 ZITUEN BERE AMAREN
 BIZIPENETAN
 OINARRITUTA.

Nondik sortu zaizu liburua idazteko beharra?

Amak behin eta berriz kontatu dizkigu berak 13 urte zituela bi-zi izan zuen Martxa Berdearen nondik norakoak, eta behin gai horren inguruan liburua idatziko nuela agindu nion, eta horretan nabil.

Txiki-txikia nintzenetik entzun izan diot nola 1975ean, lau anai-arrebak etxe atarian jolasean zebiltzala, eta bat-batean, ihesi eta beldurtuta zetorren jende uholde batek irentsi zituela eta ataritik urrundu. Ez omen zekiten nora zihoazen. Beldurrez betetako ihes bat bezala deskribatzen du amak; batetik bestera, bata bestearen atzetik, lau haur, gurasorik gabe. Aurrena herri batera, gero bestera... Halako batean bonba hotsak entzun omen zituzten eta horietako batek nire amak eskutik helduta zeraman anaia txikia hil zuen. Ihesi, bidean aurrera, lehengusu bat ere galdu zuen, eta zazpi urteko ahizpa oso-oso gaixo, larri egon bazen ere, onik nola atera zen kontatzen dut beste kapitulu batean. Ibilbideari buruz ere asko hitz egiten du amak; oinez herriz herri ibili ondoren, azkenean kamioietan hiru egunetan zehar eraman zituzten aurrez prest zeukaten errefuxiatuen Alferiako kanpamendura. Han, *haimatan* antolatu ziren denak eta hantxe bizi izan ziren hiru haurrak beste pertsona heldurik gabe.



Amaren etxe hartan inor gelditu zen?

Bai, nire amona. Burua galdu zuen. Pentsa, haurrak atarian daude jolasean eta bat-batean ez daude eta ez dituzu gehiago ikusiko. Amonak ez zuen bere alaben ahotsa zuzenean entzun hogei urte beranduago arte, ordura arte kasetetan bakarrik. Nire amaren ahizpa zaharrena hogei bat urte beranduago itzuli egin zen Mendebaldeko Saharara bere amak laguntza behar zuelako. Ni 2011n izan nintzen Mendebaldeko Saharan. Ezagutu egin nahi nuen. Guk ez daukagu erraza bertan sartzen, baina nik kazetari karneta nuenez lortu nuen. Gau osoa bat eduki ninduten atxikita izebarekin kontaktuan jarri eta bere nire bila etorri zen arte. Oporraldi guztian, joaten nintzen tokira joaten nintzela, uneoro, kontrolatuta egon nintzen.

Bizimodu gogorra izan du zuen amak, beraz...

Gerora ezkondu egin zen. Nire aita militarra zen eta bederatzihilabete nituenean hil zen gerran. Gero berriro ezkondu zen eta beste hiru haur izan zituen, baina amak bakarrik hazi gintuen, aitak alde egin zuen, eta beste batekin ezkondu. "Aita" hitzak ez du existitzen niretzat. Gogotik egin dut lan gure amak Espainian paperak ondo jarri eta joan-etorrian ibili ahal izateko.

"AMAK BEHIN ETA BERRIZ KONTAGU DIZKIGU IBILALDI BERDEAREN NONDIK NORAKOAK, ETA BEHIN GAI HORREN INGURUAN LIBURUA IDATZIKO NUELA AGINDU NION"



Farahren ama, erdian, Mendebaldeko Saharan.


Idazle lanez gain, jakin dugu irratia esatari ere izan zarela?

1998 urte ingurua edo izango zen. Dahlan, gure probintzian, Saharako Irrati Nazionala entzuten bazen ere, jendeak kate gehiago nahi zituen aukeran. Hala, Granadako elkarte batek irratia eta telebista jartzen lagundu zigun. Dahla barruan bakarrik ikusi eta entzuten zen. Etxeetan ez zegoen aparaturik. Irratia kaleetan zegoen megafoniatik entzuten zuten herritarrek. Nahi bazuten eta ez bazuten, beharko entzun.

Bost bat urte egin nituen lan irratan, 2000. urtean hasiko nintzen ni. Goizeko bederatzietan hasten nintzen lanean eta "Egun on Dahla" izeneko programa egiten genuen. Hasieran oso barregarria zen, bat-batean nire ahotsa mundu guztiak entzuten zuen; baratzeetan lanean ari ziren emakumeek, kaleak garbitzen zebiltzanek... Eguerdian albisteak izaten ziren. Normalean Dahlako kontuak lantzen genituen. Irratia kuardelean zegoen eta haiek emandako oharrak izaten ziren askotan: baratzetako txandak, larrialdiren bat edo beste... Herri bakoitzeko alkateak ere elkarrizketatzen genituen eta pil-pileko gaiak baldin bazeuden, horien inguruko herritarrek ere deitzen genituen elkarrizketatzeko.

MARTXA BERDEA

1975ean Saharako basamortuan 350.000 zibil eta 40.000 soldadu marokoarrek egin zuten ibilaldia da. Mendebaldeko Sahara Marokoren menpe jartzeko helburua zuen, ordu arte Espainiaren kolonia zen.



Errefuxiatuen kanpamenduan alabarekin.



► Aurrerago, Saharako Irrati Nazionalen ere egin nuen lan. Gerra garaiko emakume sahararrak elkarrizketatzen genituen Rabunin. Nire saio propioa nuen. Saharako Emakumeen Elkarteak antolatzen zuen programa. Beraiek emakumeak ekartzen zizkidaten eta nik elkarrizketatu egiten nituen. Lagunek beti esaten didate, txiki-txikitatik, Aljerian ikasten ari nintzenetik, dudala ikus-entzunezkoetarako bokazioa; orduan ere beti, mikrofonoa balitz bezala makila eskuan, entrebistak irudikatzen ibiltzen omen nintzen, beraiek telebistan nobelak ikusten zituzten bitartean.

Hautzaroko nolako oroitzapenak dituzu?

Egia esan, hautzaroko oso lasaia izan dut. *Haima* batetik bestera jolasean ibiltzen nintzela oroitzen dut. Ez dut inoiz oroitzapen txarrik izan. Saharar irakasleak izan nituen eskolan. Erlijio eskolan ere ibili nintzen, eta beste asko bezala, bederatzirterekin Aljeriara joan nintzen erresidentzia batera, gobernuaren beka moduko laguntza batekin. Ikasturte guztia pasatzen genuen han. Aljeriara joaten ginok udan itzuli egiten ginen, hiru bat hilabeterako, Kubara joaten zirenak, berriz, udan ere ez. Adin horretan gainera, "Oporrak Bakean" moduko programa baten bitartez, Italiara joan nintzen uda batzuetan. Familia bat daukat han. Ni baino bi urte zaharragoa zen alaba bat zuten. Zazpi urte nituenetik hamaika urteak bete artean joan nintzen. Pentsa, ikasturte osoa Aljerian pasa eta kanpalekura itzuli orduko, Italiara. Hamabi urtetik aurrerako haurrak ez dute joterik izaten, haur guztiek aukera izan dezaten.

Saharako errefuxiatuen kanpamenduan jaio zinen. Nolako da zure kanpamendua?

Kanpamenduetan jende umila bizi da, ez dago maila sozial ezberdinik, denok gara maila berekoak. Mundu guztia laguntzen menpe bizi da. Ez dago lanik. Neskek kanpoan ikasteko aukera gehiago izaten dute. Saharako errefuxiatuen kanpamendua desertuan dauden bost probintzian banatuta dago eta horietako bat Dahla da, hor jaio nintzen ni, Umdrayga herrian. Mendebaldeko Saharako leku izen

“GU ERREFUXIATUAK
IZAN GARA BIZITZA
GUZTIAN, BAINA NIRE
ALABA EZ, ETA NORMALA
DA BERA EUSKALDUNA
SENGITZEA.”



berdinak ditugu errefuxiatu kanpalekuetan. Tindufeko Dahla barruan, zazpi herri bezala daude, zazpi osasun etxe, hiru eskola, andaluziar eta euskaldunei esker eraikitako ospitalea... Ospitale handi horretan errebisioak-eta egiten dira, askotan, boluntario etortzen diren sendagileekin; begiak, belarriak... Beti gogoan dut guregana urte askoan etorri izan zen Txema izeneko euskaldun bat, agian jubilatuta egongo da. Oso maitea genuen.

Ondo antolatutako kanpamendu erraldoi bat bezala irudika dezakegu?

Aljeriatik eta hemendik jasotako laguntzak ditugu. Pertsona batzuk arduratzen dira janari banaketaz hilaren hasieran. Horren menpe gaude, baina ez dugu inoiz goserik pasa. Jateko geure ahuntzak eta ganbeluak ditugu. Hiri handitan oilaskoak eta arraina ere egoten dira salgai, baina ez dira gure egunerokoan sartzen. Baratze lanak ez dira oso errazak han, baina patata, azenariok, tipula eta erremolatxa izaten ditugu. Emakumeak arduratzen dira horretaz. Asteazkenetan egiten dute lan hori. Astelehenetan, umeak eskolara joaten direnean, emakume guztiek herria garbitzen dute. Ostegunetan erdiek garbitu egiten dute eta beste erdiek baratze lanak egiten dituzte.

Kanpalekua haur eta emakumeen mundua da, beraz.

Gizonak ejertzitoan daude, derrigorrezkoa da. Gaixo daudenak, edo ejertzitorra joan ezin dutenak bakarrik daude. Askok ari da aldatzen kanpamendua. Azkenaldian denda batzuk ere ari dira irekitzen poliki-poliki, beharrezkoak diren gauzak erosi ahal izateko: arropa, janaria eta hainbat material. Sahararrak oso irekita gaude mundura eta horrek eragin egin du. Askok, esate baterako, Kubara, Errusiara eta Libiara atera dira ikastera eta kultura eta pentsamolde nahasketak ohikoak dira. Ez gara mundu itxi bat. Emakumeak geroz eta gehiago, lantxoak egiteko aukera du, atera egiten da, bere familiak pentsatzen duena alde batera utz dezake, pentsamendu askea du eta orokorrean ez da nahi ez duena egitera behartua sentitzen.

Noiz atera zinen kanpamendutik?

2005ean Madrilerara joan nintzen hiru hilabeteko kamera ikastaro bat egitera. Aljeriara itzultzeko ordua iritsi zenean, Madrilen gelditzen zen lagun batek tentatu ninduen eta bertan gelditu nintzen. Ez nuen telefonorik eta ezin nion inori abisatu han gelditzen nintzenik. Ez nuen inor ezagutzen eta ez nuen paperik. Espainieraz txikitzen zerbait ikasi banuen ere, ez nintzen batere ongi moldatzen.

Lan bila genbiltzala, Jerez de la Fronteran, feria batean lan-txo bat atera zitzaigun patata beteak egiten eta han joan nintzen. Gogoratzen dut arratsaldeko seietan iritsi ginela eta feria handi bat ikusi genuela, eta tren geltokitik zuzenean lanera joan ginela. Hori izan zen nire aurreneko lana. Oso gutxi irabazten genuen eta lau egunez bakarrik egin genuen lan.

Gero umezain ibili nintzen. Lagun batek kanpamenduetara itzuli nahi zuen udan eta bere ordezkapena egitera joan nintzen Conil de la Fronterara. Bi haur txiki zaintzen aritu nintzen eta horiekin gaztelera asko ikasi nuen. Lan pixka bat egin eta lortutako diruarekin paperak txukundu nituen Jaenen. Han atera zen nire erresidentzia, 2007an.

Erraz lortu zenituen "paperak"?

Bai, nahiko erraz. Nire amak nazionalitate espainola dauka. Sahararrek nahiko erraz lortzen ditugu, Sahara Espainiaren kolonia izanenez, aitona-amonak ditugu nazionalitate espainola dutenak, eta beraz, urtebeteko erresidentzia dugu. Urte horretan lan egitera behartuta gaude, bestela kendu egiten digute. Urte batzuetan lan egin ondoren lortu nituen nik, eta paperak eskuan, Mallorcara joan nintzen. Nire historia horrela izan da beti, batetik bestera. Sei hilabete egin nituen han eta diru pixka bat lortu nuenean, eta paperak ere banituenez, Jerezera itzuli nintzen etxe batean lan egiteko.

Bada jendea sahararrek ez dutela lanik egiten pentsatzen duenik!

Ba ni ez naiz geldirik egon! Mallorcatik Sevillara joan nintzen eta han etxe batean interna egon nintzen. Mallorcan lan egiten nuen udan eta neguan Jerezan. Ez dut inoiz ahaztuko, udan Andaluzian lanean ari nintzela, bero handia egiten zuen, eta ura edateko baimena eskatu nuen eta ukatu egin zidan etxeakoandreak. Oso gaizki sentitu nintzen. Gauza asko egin ditut. Bainuetxean ere bi urtez egin dut lan. Orain guraso elkartean ere sartu naiz... Ikastaro bat tarteko, Gurutze Gorriarekin ere ibili izan naiz Cadizen migratzaileei laguntzen. Bi damu ditut lan kontuan. Aukerak beti etortzen dira ezin duzunean! Gurutze Gorriak beka bat eskaini

zidan. Harekin zentro batean ikasteko aukera izango nuen, titulua ateratzekoa, baina momentu hartan dirua behar nuen eta ezin nuen nire lana utzi.

Bestea, Madrilen izan zen, etorri berritan. Gobernatazaile saharar bat osasun arloan ibiltzen zen Madrilen eta medikuntzarekin lotura zuen ikasketak egiteko aukera eskaini zidan. Baina nik ez nekien oraindik zer egingo nuen nire bizitzarekin eta burua ikus-entzunezkoetan neukan. Hori da gaur egun ere ikasi nahi dudana. Kamera titulua atera nahiko nuke, baina horretarako dirua aurreztu behar dut eta lan egin, norbait zaintzen edo etxeren bat garbitzen edo...



Gurutze Gorrian lanean.



Errefuxiatuen kanpamenduan seme-alabekin

Noiztik bizi zara Zestoan?

2012an ezkondu egin nintzen, eta lau urtera alaba izan genuen, eta seme bat ere badut. Zestoara etorri nintzen aurreneko eguna gogoan dut, 2014ko apirilaren 14a. Lagun bati erroldatzen laguntzera etorri nintzen eta udalak eman zigun harrera gustatu zitzaidan, eta bertan gelditu nintzen. Lagun honekin bizitzen egon nintzen aurrena, gero haurdun gelditu nintzen, eta 2016an gure etxea alokatu genuen. Ondo hartua sentitzen naiz. Aurrena Saharakoa naiz, baina hemengoa ere bai. Alabari han galdeztzen diotenean nongoa den, berak Euskal Herrikoa dela esaten du. Nik esaten diot saharar euskalduna dela eta berak dio euskaldun sahararra dela. Gu errefuxiatuak izan gara bizitza guztian, baina nire alaba ez, eta normala da bera euskalduna sentitzea.

jone bergara

IRRABIA



Egia da orain lehen baino autobus gehiago daudela, Donostiara joateko ordu erdiro dago, baina ikasturte honetan jende gehiago dabil eta arazoak egoten dira. Zestoarrak azken herria gara eta autobusa beteta datorrenean ordu erdi zain egon beharra askotan gertatzen da eta itzuleran unibertsitatean jendea kalean gelditzea ere bai eta ez du graziarik egiten.

Urko Canseco
42 urte



Urte askoan ibili naiz kotxez baina azken urteotan oso gustora nabilen autobusez. Orduerdi garraio publikoa izatea lujo bat da. Azken boladan ordea desastrebata; atzerapen handiarekin datoz autobusak eta askotan beteta. Zestoarrak kalean gelditzen gara eta Udalarekin ere harremanetan jarri gara eta laguntzen ari da. Geroz eta gehiago gara garraio publikoa erabiltzen dugunok eta bultzatu egin behar dela uste dut.

Haroa Rodriguez
46 urte




Esango nuke orokorrean ondo dagoela. Azpeitia eta Azkoitia aldera hobeto komunikatuta kostako beste herri batzuekin baino, baina... Niri ez zait gertatu, baina unibertsitatera edo lanera Donostiako autobusean berandu iritsi denik bada, eta zerbitzu gehiago jaretzea ondo legoke.

Asier Zulaika
22 urte



Nahiko eskasa dela esango nuke. Alde batetik, zenbait linea eta ordu jakinetan jende asko ibiltzen da, eta autobus gehiago jarri beharrean kanpoan uzten zaituzte, gainera, orokorrean ez dira puntual ibiltzen autobusak eta atzerapen handia izaten dute.

Amaior Gartzia
22 urte




(Erantzuleak guztira: 109)



- Ez da nahikoa, maiztasun eta puntualitate handiagoa behar da
- Egokia, baina hobetzeko tartearekin
- Eraginkorra eta puntuala



Correos edo Gaztelekura igotzeko eskaileretako barandari zati bat falta zaio.



Arroagoiko iturri ondoko eserlekuak sendotu dituzte.

arado

Er

ARRAZA

AZAROA

JUBILATUEN ASTEA:

25 ASTELEHENA
16:00. Bingo jubilatuen tabernan.

26 ASTEGARTEA
17:00 karta jokoa, Gisasolan.

28 OSTEGUNA
17:00 karta jokoa, San Juanen.

29 OSTIRALA
18:00. Gaztaña jana.

30 LARUNBATA
Ibilaldia eta mokadutxoa.

01 IGANDEA
Meza eta bazkaria jubilatuen tabernan.

AGIRO MENDI ASTEA:

27 ASTEGARTEA
19:15, Alonderon. Koldo Ruiz: Bolivia 2024; hiru sumendi, hiru seimilako.

28 OSTEGUNA
Jose Manuel Regil: Manasluko trekinga 2024. Alonderon, 19:15ean.

30 LARUNBATA
BTT zeharkaldi erraza (3h 30min). Irteera 9:00etan Gurutzetik.

29 OSTIRALA
9:30-11:30. Erorketak saihesteko tailerra, Alonderon. * Odol ateraketak, Alonderon. * 19:00. Gaztain erreak, Arroabeko pilotalekuan.

30 LARUNBATA
17:00. Kiki Koko Moko pailazoen "Bizi bizi Zirkua!" ikuskizuna, Arroabeko frontoian.* 12:00. Joxean Pascual eta Karmele Muroren organo kontzertua, Aizarnako parrokian.

ABENDUA

01 IGANDEA
Amillubi proiektuaren urteurrena. Auzolana, ekitaldia eta mokadutxoa.

03 ASTEGARTEA
Euskararen eguna: 17:30. Ekain pailazoaren txou eroal, kiroldegian. Arroabeko eskolan, euskararen egunaren jaia.

11 ASTEGARTEA
18:30 Amancay Gaztañagaren "Martin Martina eta Sorginen Batzarra", Lili jauregian.

13 OSTIRALA
9:30-11:30 Erorketak saihesteko tailerra, Alonderon. Izena eman behar da aurrez, ambulatorioan. Tailerra gazteleraz izango da.

14 LARUNBATA
Gure Txokoa elkartearen 75. urteurrena. 17:30. Joaldunak. 18:30. Mokadutxoa arkupetan eta poteoa herriko txarangarekin. 21:00. Bertso afaria Aitor Salegi eta Andoni Egañarekin. Txartelak, 35 eurotan, Uztapide tabernan salgai (azken eguna: abenduak 7).

ARKEOLOGIA ASTEA:

10 ASTEGARTEA
19:00. Asier Gomezen hitzaldia, Alonderon: Georgiatik Zestoara, Atapuercatik pasatzen; lehenengo gizakien zantzuak bilatzen Urolako bailaran.

12 OSTEGUNA
19:00. Joseba Riosen hitzaldia, Alonderon: Azken neandertalak Euskal Herrian.

15 IGANDEA
11:00-16:00 Antxietaren erakusketa herriko plazan.

28 LARUNBATA
Jon Maiaren "Kantu berri bat gara" emanaldia, kiroldegian. Sarrerak udal bulegoan.

ABENDUKO AGENDA

GAZTELEKUAN:

5 ETA 12: Olentzero egin (3. zikloa)

13 ETA 14: Olentzero egin (DBH)

17: Koxinatu sukaldaritz tailerra, Maitane Cabezarekin 17:00-18:30 (1-2.zikloak). Ezinbestekoa izena ematea eta hasieratik bukaerara arte parte hartzea. Plaza mugatuak.

19: Amantalak margotu.(3. zikloa)

27: 16:00 Master Chef. (DBH)

30: Salting Iruñea (3. zikloa eta DBH). Irteera 12:00etan eta itzulera 18:00etan Gurutzean. Prezioa 15 euro. (Zestoan erroldatutako dirulaguntza onuradunek, doan).

BARRANCXO:

Herrigunean HH: abenduak 4 eta 18 (17:00, gaztelekuan)

-Herrigunean LH: abenduak 13 (17:00, gaztelekuan)

-Aizarnan: abenduak 13 (17:30, kultur etxean)

-Arroabean: abenduak 20 (17:30, Elkargunean)

KONGAIÐAZU IPUIN BAC:

Abenduak 10, 17:30.

EPELIAN:

Abenduak 1, 15 eta 22.

GABON KANTEN ENTSALIOAK:

- Abenduak 16. 18:15ean

- Abenduak 19. 19:00etan

- Abenduak 20. 18:15ean

FERREGI

BERRIKUNTZAK

ELEKTRIZITATEA · ITURGINTZA
GREMIOEN KOORDINAZIOA
AEROTERMIA · GASA
BEROKUNTZA

Jagoba Otaegi Isidro Fernandez Joan Fernandez
695 721 015 690 108 996 667 537 892

Taxi Zestoa



9 Eserleku
Eneko 603 394 729 Joseba 670 431 906

Surya Paz Marticorena



Osteopatia - Kirol masajea

605 765 140 Portale kalea 1, Behea B · 20740 ZESTOA (Gipuzkoa)



ZESTOAKO SAN JUAN FUNDAZIOA
1919-2019

Bidezarra, 5 20740 Zestoa 943 147 019
e-posta: zestoakosanjuan@gmail.com
www.zestoakosanjuan.blogspot.com

Gesalaga kalea 20
Zestoa 20740



MIZU
Hertz Klinika

mizuclicinical@gmail.com
ZURIÑE ECHEBERRIA RENOBLES COLEG. 797
IDOIA ECHEBERRIA RENOBLES COLEG. 868

Telf.: 943 14 78 28



Eskua
Therapy Group

Fisioterapia
Osteopatia

943 29 08 99

Toribio Altzaga 20 - 22 20740 Zestoa



GISASOLA

EGOITZA - RESIDENCIA
Toribio Altzaga 6 - Zestoa
943 897 077 / 688 842 848 residenciagisasola.com

Gabon disdiratsuak ✨

ETXEKO TXOKO GUZTIETAN!



Urrestilla bidea, Azpeitia
943 15 00 85 | www.kimubat.eus



 **KIMUBAT**
— GARDEN